

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2022ko ekainaren 23an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“2022ko uztailaren 3an San Martzialeko zelaian irekiko den kantinaren eta jarriko den txosnaren ustiapena adjudikatzeko deialdia egitea onartu zuen udalak.

Begarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultur edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak, eta baita ere Bergaran delegazioa izan eta udalerrian urtean zehar herritarrei zuzendutako ekintzak burutzen dituzten elkarteek, lehentasuna izango dutelarik kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituzten herriko taldeek.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 21ean 12:00etan bukatu da.

Honako hauek dira eskaera egin dutenak:

- P.B.Z jauna, (15XXXX98 NAN) Harrera elkartearen izenean (G 75070896).
- M.A.L andrea, (58XXXX96K NAN) Ikasle Abertzaleak (Bergara talde lokala) elkartearen (G95720611) izenean.
- A.A.A jauna, (15XXXX20A NAN) Gure artera SARE taldearen (G75127555) izenean.
- M.B.G andrea, (15XXXX33D NAN) Bergara aurrera taldearen (G20881116) izenean.

2022 urtean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta jarriko den txosnaren ustiaketa adjudikatzeko eskaera aurkeztu dutenen artean zozketa egin da 2022ko ekainaren 22an alkatearen bulegoan.

Beraz, lehen atera den “Ikasle Abertzaleak” (Bergara talde lokala) elkarteak (G95720611) aukeratzeko lehentasuna izango du, eta horren ondoren “Gure artea SARE” taldeak (G75127555) libre gelditu den instalazioaren ustiaketarako aukera izango du.

Zozketaren emaitza eta lehenak egindako aukeraketa kontuan izanda, **ERABAKI DUT**

LEHENENGOA.- 2022ko uztailaren 3an San Martzialgo kantina eta txosna ustiatzea (oinarri jarraituz) honako hauei adjudikatzea (zenbakia zozketan atera den lehentasun ordenari dagokio):

- Kantina, Gure Artera SARE (2)
- Txosna, Ikasle Abertzaleak (Bergara talde lokala) elkarteak (1)

Honako talde hauek erreserban gelditzen direla aitortzea:

- Bergara aurrera taldea (3)
- Harrera elkarteak (4)

BIGARRENA.- Oinarriek diotenari jarraituz, adjudikazio-hartzaile suertatu diren bi taldeei jakinaraztea deialdia arautu duten oinarrietan jasotakoak bete beharko dituztela eta 3. puntuari jasotako hauek gogoraraztea, besteak beste:

- Adjudikazio-hartzaileek arduradun bat izendatu beharko dute udalarekiko harremanetarako. Izendapen hau idatziz egin beharko da eta udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoarekin, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontaktzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.
- Zinegotzi, dantzari, txistulari eta bertsolariei salda, txorizoa, haragia, ogia eta ardoa eskainiko diete kantinaren adjudikazio-hartzaileek soka-dantzaren ondoren, eguerdi inguruan. Kantu saioan parte hartzen dutenei ere 10 ardo botila eskainiko dizkiete adjudikazio-hartzaileek.

- Kantinaren eta txosnaren ustiaketarekin zerikusi zuzena duten eta Udalak eskatutako bestelakoak.
- Egun horretarako behar den generoa batzeko, bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute adjudikazio-hartzaileek, euren kontura muntatu eta kendu beharko dute eta lokala hustu beharreko epe berean kendu beharko dute.
- Edalontzi berrerabilgarriekin egin beharko da lan, derrigor. Behar izanez gero udalak badauzka, eta Kultur Zerbitzuan jaso ahal izango dira. Garbiketa egin behar dela-eta, dagokion kostua ordaindu beharko da, eta horretarako udaletik dagokion faktura bidaliko zaie. Bestalde, bueltatu ez den edalontzi bakoitzeko euro bat ordaindu beharko da.
- Sortzen diren hondakinak ongi sailkatuta biltzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako zailtasun bereziak egon daitezkeela uste bada, Debagoieneko Mankomunitateko Hondakinen zerbitzura jo daiteke. Bestelako eskaerarik ez badago, udalak ontzi arinak eta papera biltzeko edukiontzia jarriko dizkie eskura, eta adjudikazio-hartzailea arduratuko da betetako ontziak udalak antolatutako hondakinak jasotzeko guneetara jarritako ordutegian eramateaz.
- 375 euroko fidantza jarri beharko dute ekainaren 28ko 12:00ak baino lehen.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea eskaera egin duten talde guztien ordezkariari eta aditzera ematea ustiatze-eskubideari uko egin nahi badiote, idatzia aurkeztu beharko dutela Bergarako udalean 2022ko ekainaren 24a baino lehen.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko ekainaren 23a
IDAZKARIA

